


Picassoren 'Guernica' koadroa Bilbora ez ekartzea erabaki du Reina Sofia museoak

Eusko Jaurlaritzak adierazi du erabaki politikoa oraindik hartzeko dagoela

Picassoren 'Guernica' koadroa ez duela Bilbora ekarriko erabaki zuen atzo Madrilgo Reina Sofia museoeko patronatuak. Erabakiaren arrazoa koadroaren egoera hauskorra da. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak erabaki teknikotzat baino ez du jo patronatuaren erabakia, eta oraindik erabaki politikoa hartzeko dagoela adierazi du. EAJ alderdiak «hutsegite politiko eta kultural larritzat» jo du Madrilgo museoaren erabakia.

L. Agirre - J. Ubeda / Donostia



Picassoren Guernica orain bost urte jarri zuten Reina Sofia museoan eta ordutik ez da handik mugitu. EFE

REINA SOFIA museoeko patronatuak deliberatu du Picassok orain dela 60 urte pintaturiko koadroa dagoen lekutik ez mugitzea. Bileran luzea izan da. Atzo eguerdirako kontuak argituta izango zirelakoan zeuden, baina arratsaldean berriro bildu behar izan zuten patronatuko kideak, behingoz Guernica mihisea Bilbora eramateko baimena eman-go zuten edo ez argitzeko. Hala ere, erabakia aho batez hartu du erakundeak, Valerio Bozal lehendakariak adierazi duenez.

Patronatuak museoeko konserbazio teknikarien txostenaren esanei jaramon egin die, eta koadroa inora mugituz ez dela komeni erabaki du. Museoeko Kontserbazio Kabineteko zuzendari Pilar Sedanok, Guernica-ren beraren aurrean eman zizkien azalpenak atzo arratsaldean patronatuko kideei. Azalpen horietan arrazoiak zera izan da: koadroa oso egoera hauskorrean dagoela eta mugituz gero hondatu egin daitekeela, eta, horrenbes-

tez, hobe dela dagoen lekuan uztea. Erabaki horren arabera Guernica ez da Bilbon ikusi ahal izango, eta, patronatuak gehitu duenez, ez eta beste inon ere.

Guggenheim Bilbao museoak datorren urriaren 3an zabalduko dute, eta ordurako Gernikaren bonbardaketaren sinbolo bilakatu den Picassoren Guernica bertan egotea nahi zuten. Hori horrela izanez gero, New Yorkeko Guggenheim Fundazioa prest agertu zen Picassoren inguruko erakusketa antologikoa paratzeko Bilboko egoitzan.

Reina Sofia museoeko konserbazio teknikoen arabera, koadroak pitzadura txiki ugari ditu, eta mugituz gero hausteko arriskua dago. Koadroaren egoera hori urteetan batera eta bestera ibili izanari egotzi diote teknikoei. Guernica koadroa 32 alditan mu-

gitu izan da eta munduan mutur guztietara eramana Errepublikaren aldeko dirua biltzeko. Guernica koadroa orain bost urte jarri zuten Reina Sofia museoan, eta geroztik ez da mugitu, nahiz eta New Yorkeko MOMA museoak, Parisko Pompidou zentroak eta Tokio etaartzelona Arte Modernoko museoek sarritan egin duten eskaera. Picassoren Guernica Euskal Herrira ekartzeko eskaera historikoa da gurean, koadroak duen balio sinboliko eta afektiboa dela eta.

Hainbat aldiz eskatua • New Yorkeko MOMA museoak 42 urtetan zaindu ondoren, Guernica Madrilera iritsi zen 1981eko irailaren 10ean. Urteotan Eusko Alderdi Jeltzaleak hainbat aldiz eskatu izan du Picassoren koadroa, bertan erakusteko asmoarekin. Hala, 1988an Iñaki Anasagasti EAJko diputatuak Espainiako Gobernuari egindako eskaera ez zen onartu.

Guggenheim Fundazioak Bilbao museoak eraikitzeke proiektua aurkeztu zuenetik ere, behin baino gehiagotan eskatu izan da Picassoren mihisea Bilbora ekartzeko Guggenheim museoaren inaugurazio egunerako. 1995eko urtarrilaren 27an Juan Ignacio Bidarte Guggenheim-Bilbao Partzuergoko zuzendariak aipatu zuen Bilboko Guggenheim museoak hainbat areto egoki izango dituela Picassoren Guernica edukitzeko.

Koadroa Euskal Herrira ekartzeko paradaz ere mintzatu ziren EEBBtako Guggenheim Fundazioarekin Bilbon museoak eraki aurretik egin ziren negoziazio saioetan. Izan ere, Carmen Gimenezek, Guggenheim Fundazioan diharduenak eta BBVko aholkulari artistikoak, Guernica Euskal Herrira ekartzeko aldarrikapena baliatu zuen euskal instituzioekin hitz egiteko garaian.

Iñaki Anasagasti bera Francisco Alvarez Cascos Espainiako Gobernuoko lehendakariordearekin bildu zen 1996ko maiatzaren 29an Guernica-ren lekualdaketaz mintzatzeko. Esperanza Agirre Espainiako Gobernuoko Kultura eta Hezkuntza ministroak, berriz, Reina Sofia zentroko patronatuaren esku utzi zuen koadroa Bilboko Guggenheim museora ekartzearen erabakia. Eskaera formalik ez zegoela aipatu zuen, baina eskaera egongo balitz, zentroko patronatuak neurturen beharko lituzkeela lekuz aldatzearen arriskuak eta kostuak. Bilboko Guggenheim Museoeko Batzorde Eragileak 1996ko irailaren 30ean eskatu zion Reina Sofia zentroko patronatuko lehendakariari Guernica Bilboko Guggenheimerara ekartzeko.

Iragan otsailaren 17an Jose Maria Agirre Eusko Jaurlaritzako kontseilariordeak adierazi zuen Guernica Bilbon erakutsi beharko lituzatekeela, Thomas Krens New Yorkeko Guggenheim museoeko zuzendariarekin izandako bazkarian. Agirrek ez zuen ukatu Espainiako Gobernuarekin gestiorik egiten ari ez zirenik koadroa denboraldi batez uzteko.

Juan Ignacio Bidarte Bilboko Guggenheimerako zuzendaria eta Tomas Uribeetxebarria Bizkaiko Kultura diputatua ere Madrilgo Arco azokan antolatutako ekitaldian ziren, Guernica koadroak Bilboko museoaren inaugurazioan egon beharko lukeela aldarrikatzeko. Dena den, Guggenheimerako ordezkariak onartu zituzten Picassoren koadroa ospetsua Bilbora ekartzeko erabakia lituzkeen eragozpenak, nahiz eta Bilborako garraioan koadroak kalterik ez zuela izango ziurtatzen zuten txostena igorri Reina Sofia Arte Zentroari.

Mari Karmen Garmendiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuak, otsailaren 26an iragarri zuen Bilboko Guggenheim museoak Pablo Picassoren inguruko erakusketa antolatuko zuela, Guernica denboraldi baterako Bilbora ekarriko gero. Garmendiak Legebiltzarrean azaldu zituen Bilboko Guggenheim museoak zabaltzeko planak, obrak lortzeko politikaren inguruan ere mintzatu zen, baita kontratazioen inguruan ere. Legebiltzarkideei proposatu ziren akordio batera heltzea Guernica ekartzeko. Koadroa bi urterako ekartzeko hitzarmenaz mintzatu zen Garmendia, eta Euskal Herrian behin-betiko geratzearen inguruan gogoeta egiten jarrai zitekeela aipatu zuen.

«Madrilgo Gobernuak du azken hitza»

Montse Arregi / Bilbo. - Mari Karmen Garmendiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuak, ez du behin-betiko erabakitzen hartu atzo Madrilgo Reina Sofia Patronatuak adierazitakoa. «Erantzun politikoaren zain» dagoela ziurtatu zuen. «Orain jaso den erantzuna teknikoa da, eta, horretaz gain, ez dakigu zertan oinarritzen den», azaldu zuen Kultura sailburuak. Garmendiaren iritziz, gaur egun bi txosten daude Picassoren Guernica koadroaren leku aldatzearen inguruan: bata, Reina Sofia Patronatuan atzo aur-


keztutakoa; eta bestea, koadroaren eskaria egitean Euskal Herritik bideratu zena. «Biak teknikoak dira eta erkatu beharko lirake», esan zuen sailburuak.

Beraz, azken erabakia «politikoa» dela deritzo Garmendiak, «eta hori Madrilgo Gobernuak hartu behar du». Edozelan bere, Gasteizko Kultura arduradunaren arabera, «argi dago Guernica Euskal Herrira ekartzea erabaki ona izango lituzatekeela eta horren zain gaude». Bide batez gogorarazi zuenez, joan den astean Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza eta Kultura ba-

tzordeak aho batez, alderdi guztien adostasunarekin, koadroa eskatzea onartu zuen. «Beraz, espero dugu oraindik azken erabakia hartu gabe egotea; itxaropen hor dago», azpimarratu zuen.

Bestalde, Guggenheim Bilbao Museotik ez zuten inolako adierazpenik egin nahi izan Reina Sofia Patronatuaren erantzunaz. «Gure eskariaren erantzunik ez dugu», ziurtatu zuten atzo bertako iturriek.

EAJ alderdiaren ustetaz, «hutsegite politiko eta kultural larria» lituzateke Guernica koadroa Euskal Herrira ez ekartzea. Iñigo Urkullu Bizkai Buru Batzarreko bozeramailearen hitzetan, «patronatuak azaldutako arrazoiak erabiltuta, koadroa ez zen inoiz Estatu Batuetatik Espainiako Estatura eramango. Orduko garraio arazoak askoz konplikatuagoak izan ziren orain izango lirakekeenkin alderatuz». Ildo horretan, «kulturarekin zerikusirik ez duten arrazoiak» ikusi ditu Urkulluk Reina Sofia Patronatuaren erantzunean. «Sentiberatasun eta ausardia politiko falta» nabaritu du bertan jeltzaleak. X



KANTALDIA

URBIL ETA

TXOMIN ARTOLA

ERRALDOIEN TXOKOAN

Maiatzak 14

Arratsaldeko 8:30etan